



MUSIKA

Koherentziaren ordaina



FLY SHIT ETA BROT BORD

KASBA MUSIK

IKER BARANDIARAN

Debagoienan izan den hardcore talde bakarrenetarikoa da Fly Shit. Asmo handirik gabe eta egiten dutenean erabat sinistuta; presak estutu gabeko, eta era berean, etenik gabeko ibilbide sendoa daukate bizkarrean. Are gehiago, ez dute inoiz kontzertu txarrik eman, ezta soberako pausorik ere.

Gaztetxeen, etxe okupatuen eta autogestioaren bidean eta testuinguruan beti, hardcorea sasoiko mantentzeaz gain, berau dotoretu eta aberastu dute 30 urteotan egin duten lan bakoitzean.

Abesten dutena bizi dute erabat, eta bizitzak uzten dizkien zirrikituak baliatzen dituzte gustukoaren dutena egiteko: grabatzeko eta zuzenekoak emateko.

Lanak eta koherentziak ordaina

dute –edo beharko lukete!– eta, nolabait, horren opari gisa hartu dute Brot Bord talde katalanarekin erdibana osatutako diskoa kaleratzea Kataluniako Kasba Musik zigiluak. Biak ala biak lan berria aurkezten dabilta gustura Euskal Herrian, Katalunian eta bizitzako agendek aukera ematen dieten beste hainbat tokitan.

Pausoz pauso hazten ari da Bergarako laukotea; hardcorean gero eta esparru gehiago arakatzen eta gozatzten ditu. Lan honetan sei kantu berri batu dituzte. *Elkarrekin egin dezagun* pieza aberatsarekin hasi dute diskoa, zeinak erakusten duen taldeak aurreiritziak aspaldi uxatu zituela, abestiak lau minutu eta erdi pasako iraupena baitu. Post-hardcorearen onena dara-

man *intro* berezia dauka, tempo erdiak, eta malenkonia eta ezinaren arteko garratzasuna puri-purian. Jarraian dator *Hitzak*, eskola zaharreko hardcore-punk azkarra, pasarte melodikoak ere uztartzen dituena. *Esnatu lozorrotik*-ek badu ia metaleroa duen pisua –neurtua–, eta pieza indartsu bezain jostari egiten duten riff eta erritmo bereziak. *Sumina* tempo erdiak, ia rapeatuak, eta erritmo askeagoak batzen dituen hardcore pieza da. Eta bukatzeko Fugazi musika talde handiaren *Merchandise* euskarara irmo ekarrita.

Brot Bord taldea ezin aipatu gabe utzi. Kataluniako beterano batzuek osatutako taldeak melodia nabarmentzen den hardcore-punk-rocka egiten du, malenkoniatsua. ●